

Aurkezpena

Jai gaietan sakondu ahala, konturatzen gara esku hartze kolektiboak bere eragin eremua hainbat alderditara hedatzen duten ekitaldi guztien konplexutasunaz, alderdi horiek zerikusia dutelarik ekonomiarekin, turismoarekin, erlijioarekin, erritualarekin... eta, jakina, dibertsioarekin eta herrien kulturaren ezagutzarekin.

Dauden aldagai kopuru handiaren berri eman beharra dago, ez bakarrik adierazmoldeei dagokienez, baizik eta, gainera, ikertzaileek eskainitako ikuspegi, metodologia eta ikuspuntu kopuru eskergei dagokienez: hala antropologia edo etnologiaren esparrukoak nola historia, musika eta folkloreaken esparrukoak.

Gure argitalpenaren kapitulu berri honetan, *Jentilbaratz. Cuadernos de Folkloreaken* jardunbide jarraikiari erantzen zaizkion hiru sail edo atal eskaintzen ditugu.

Alde batetik, erredakzioan jasotako lanak, ez ustekabeen, bat datozenak teatroaren formula herritarrean, Euskal Herriko ekialde muturreko lurraldean, Zuberoan. *Maskaradek* eta dantzak eskua ematen diote elkarri, kulturaren erlazio eta sustapen bide gisa gure historiaren pertsonaia bizien eta irudizkoen bidez, bere denboran, behaketa josi eta transkribatzen jakin zuten autoreek finkaturiko protagonistek halako aura geldia hurbiltzen digutela.

Performanceak biziki markaturiko antzeppen horietan, Inauteriaren barnean ez da ahaztekoa jatorriz gure herrialdeko bazter horretakoak diren musikak eta, batez ere, dantzak duten garrantzia. Ikusgarritasun betean neguko ospakizunetan eta udako jaietan egiten den dantza eta, beste maila batean eta beste leku batean, Gizpuzkoako Ataunen zehazki, dantza azterlan proiektu baten gai gisa, autorearen lehenengoa, eta bazter hauetan ia-ia eskaini eta zabaldu ez den Dantzaren Antropologia bezalako zerbaiten oinarria ezarri beharko luketen funtsezko osagaiak dauzkana.

Amaiera gisa, 2008an hirurogei urte bete zituen *Duguna* folklore taldearen historia laburra, gorabeheraz eta arrakastaz betea, zeinek berdin balio duten, etorkizuna duten beste edozein kolektiboren kasuan bezala, bai hainbat argitalpenen orrietan hondoratzeko nola plazara irteteko udal ordezkari gisa.

Bigarren atala, denbora hedadura baten barnean kokaturik ageri da, 2006an Donostiako Miramar Jauregian egindako "Festa berriak. Antzinako Folklore eta Gaur egungo Ekintzak / Fiestas nuevas. El Folclore de Antaño y los Actos de Hoy" Jardunaldiko txosten eta komunikazioetan azalduko lanek mugatua, alegia. Kasu honetan, ondoren aurkeztuko den Jardunaldian gertatu bezalaxe, gogoratu

behar dugu autore guztiek ez dituztela beren testuak bidali: horra horiek hemen ez azaltzeko arrazoi nagusia.

Testuetan, ikertzaile ezagunek ondurikoak batzuk eta tradizioan zuzenki dihardutenek buruturikoak beste batzuk, jaien ikuspegi nabariak eta desberdinak aurkitzen ditugu: berriak beren gizarte oinarriagatik; berriak berreskuratu eta eguneratuak direlako; berriak beren sorreragatik; edo berriak beren inkoherentziagatik eta antzinatasun erlatibo eta konplizeagatik.

Folklore Saileko Lehendakariak sarrera laburra egin ondoren, lehen txostenari heldu zitzaion. J. Martí, hainbat liburu eta artikulu andanaren egile den ikertzaile ezagunari egokitu zitzaion; haren aurkezpen eskematiko eta transzendentalak jai bakoitza eta jaien tipologia itxuratzen dituzten elementu guztietan sarrarazten gaitu.

Ikuspegi –geografiaren aldetik– orokor batetik zehatz batera. Kepa Fdez. de Larrinoa, gizarte antropologoak bere esperientziak eskaini zizkigun, gehienbat lekuan bertan buruturikoak, Ekuador edo Kolonbian behiala, eta kasu honetan jadanik kontrolatua duen zuberotar espazioan, Ahüski inguru paregabera doazen behiak laguntzen.

Jai alorra, ikus daitekeenez, toki batetik bestera doa. Mutur batetik bestera: Enkarterriko Haranetara. Ingrid Kuschick-ek urte batzuk daramatza Bizkaiko eskualde horretako jaiak biltzen eta horietaz aieruka ari dela. Haren teoriak noiz edo noiz argitaraturik ikustea espero dugu.

Egun bereko arratsaldean, jaiaren beste eszena batzuk entzuteko eta ikusteko aukera izan genuen.

Lehenik, Mikel Aranburu, txistulari, dantzari, idazle eta ikertzailea, baita Iruñea bere hiriko jaien protagonista aktiboa ere. San Fermin, denboran zehar ezin konta ahalako aldaketa izan dituen jai baten azken aldian sorturiko joera eta aldaketen ordezkari baliozkoenetako bat dugu Mikel.

Ondoren, Xabier Etxabe eta Xabier Alberdik *Olentzero (Orentzago)* pertsonaia, Errege Magoen eguna eta Eguberriko jaiak herri jakin batean, Zarautzen, hartu zuten mintzagai, hots, une orotan halako antzinako airea gaurko ospakuntza mugimenduekin nahaste begiratzen jakin duen herri batean.

Amaitzeko, bi komunikazio aurkeztu ziren. Horietako bat, *Arrateko Amaren dantzak*, Gipuzkoako herri horretan berreskuraturiko dantzei buruzkoa. Oier Araolazak sortze prozesua azaldu zigun dagozkion fase guztietan, koreografia sormeneko beste adibide batzuk tartekatzen zituela. Alfredo Asiainena zen bigarrena, eta horren gaia: jokoak eta transmisio eta sorrera hizkuntza forma-tua, “herri tradizioetik” “eskolako pedagogia” edo “hiriko eskolaz kanpoko” eremura.

Hirugarren atalak folklore eta etnografiaren alorrean mugitzen direnentzat guztiz berria den mundu batean sartzen gaitu, nahiz mundu hori hurbilekoa den

fotografia objektu dokumental gisa eta egindako ikerketen lagungarri erabiltzen dutenentzat.

Gaur egun ere argazki materialari eman ohi zaion balio urri eta lausoa, katalpulta gisa baliatzen dugu ikusizko eta ikus-entzunezko aurkezpen bide berrien bilaketan. Kontzeptu horrek “Folklore a ikus-entzunezkoetan / El Folclore en los audiovisuales” Jardunaldia antolatzea eraman gintuen, eta hartara bildu ziren gaien adituak diren batzuk, idatzizko adierazpenean baino areago ikusizko atalean mugitzen direnak.

Esperientziaz eta antzeaz mundu horren ordezkari diren pertsonaren bat edo beste Jardunaldian ez bazen ere, harrera beroa bildu zuten askotariko parte hartzaileek. Halere, kontuan izan behar dugu, goraxeago esan berri dudanez, ia txostengile guztiak fotografia, zine eta bideoaren alorretik zetozela; hala, hemen aurkezturiko testu gehienek, Erredakzio Batzordearen gogoia bete nahirik, ahalegin berezia eskatu diete beren egileei. Modu horretara lortu dugu haien bizitza eta esperientziaren atal bat paperean mamitua gelditzea, horixe baitzen erakusketari begira eskatzen zitzaiena.

Manuel Garrido, lehenengo txostengilea, hainbat arazo fisiko zirela eta, ezin zen bertaratu. Halere, txostena zuen DVD bat helarazi zigun hemen argitaratzen den testuarekin batera.

Jarraian, Eugenio Monesma, penintsula osoan eta uharteetan dokumentalak egiten dituen Pyrene enpresako ekoizleak hitz egin zuen. Gero, Juan Miguel Gutiérrezen txanda etorri zen: bere obretariko bat proiektatu zigun, Yebran (Huesca) egina, Santa Orosia jaiaren irudiak zekartzana.

“Cruce de miradas: ‘La pelota vasca’, con Orson Welles” izenburukoaren bidez, Eneko Loretek guztiz bestelako ikuspuntu bat eskaini zigun: praktikaren teoria. Goizeko denbora amaitzeko, Koldo San Sebastián, ETB edo TVErentzat dokumental eta turismo sailen errealizadore eta liburugileak bere iritzia azaldu zigun telebistaren gaur egungo kontuez.

Goizean, ikus-entzunezko (zinea, bideoa eta telebista) mailako erakusketak; arratsaldean, irudi finkoaren (fotografia) txanda izan zen, soinuduna edo soinu gabea. M.^a Ángeles Sánchezek eman zuen hasierako hitzaldia diapositiba proiektio batez lagundurik: benetan interesgarria, jaiaren aurrean zenbait argazkilarik harturiko jarrerak ikusarazten baitzituen.

Santi Yanizek hartu zuen espainiar argazkilariairen lekukoa. Kazetari emankorra, mendi, paisaia eta naturalista izaerako argitalpenetan espezialista, baina baita jaizale ere, bereziki Euskal Herri mailan; hala, irudi ederrak direla bide, gure herrialdearen geografiako era askotako bazterrak hurbiltzen dizkiguten zenbait libururen egilea dugu Yániz.

Gonzalo M. Azumendi, aurrekoaren mahaikideak informatika akatsaren zori-txarrak jo zuen eta, hitzaldia ezin eman bazuen ere, orri gutxi batzuetan bere

ikuspegi eta jarrera guztiz kontrastatua eskaintzen digu hainbat herrialdetan eza-guturiko gertaera bakoitzaren aurrean.

M. Azumendiren espazioa José F. Alonso lagunak beretu zuen. Valladolideko argazkilari gazte honek ikus-entzunezko baten bidez Jardunaldirako propio prestatuturiko muntaia aurkeztu zigun, eskertzekoa dena, kontuan izanik horrek dakarren lana. Horri aski ez iritzirik, lerro batzuk idaztera ausartu zen bere lan egiteko era eta jendearen tipologia eta, batez ere, bidean topatzen dituen jaietako esamoldeak azaltzeko.

Azkenik, Luis Colomo eta Óscar Bilbaok eskaini zuten bideoan, Kobetamendiko (Bilbo) zelaietan duela zenbait urtetik egiten den rock jaialdiaren une batzuk ikusi ahal izan genituen.

Hemen aurkezturiko lanen artean metodologia alde handiak badira ere, horietako batzuk eskaintzeko asmoaaldakortasun arretatsuaren –nahiz errazaren– inertziatik haratago doa, oinarri zientifikoaren barnean, askotan arautu beharrean aurkitzen garela, gutxienez argitalpen mota honetan.

Horrek dakarren ahalegina dela eta, kultura tradizional, herritar, garaikide edo nahi den bezala izenda dezakegun horren aldeko lana eskuzabalki eskaintzen diguten pertsona guztiengan fidatu beharra dugu, baita eskertu ere. Kultura horren adjektiboa gutxienezkoa da, garrantzitsua zera da, edozein azterlan edo ikerlanen parametro guztien finkaleku den oinarri metodologiko kualitatiboa.

Emilio Xabier Dueñas
Folklore Saileko Lehendakaria

Presentación

A medida que profundizamos en la temática festiva, nos damos cuenta de la complejidad de todo acto en el que la participación colectiva hace extensible su campo de acción a otros aspectos ligados a la economía, al turismo, a la religión, al ritual... y, por supuesto, a la diversión y el conocimiento cultural de los pueblos.

Se hace preciso reseñar la gran cantidad de variables existentes, no solo en lo relativo a las formas de expresión sino, y además, a la ingente cantidad de perspectivas, metodologías y puntos de visión ofrecidos por los investigadores: tanto del ámbito antropológico o etnológico, como historiador, musical y folclórico.

En este nuevo capítulo de nuestra publicación, ofrecemos tres bloques o apartados que se incorporan a la continuada trayectoria de *Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore*.

Por un lado, los trabajos recibidos en la redacción, coincidentes y no de forma casual en la fórmula popular del teatro, en el territorio más oriental del país: Zuberoa. Las *Maskaradak* y las danzas se dan la mano, como vías de relación y fomento de la cultura a través de personajes vivos y figurados de nuestra historia, acercándonos una especie de halo pausado producido por los protagonistas fijados a través de los autores que supieron, en su momento, hilvanar y transcribir su propia observación.

En estas representaciones, marcadas vivamente por la *performance*, no debemos olvidar la importancia que tiene la música y, sobre todo, la danza dentro del Carnaval, originarias de este rincón del país. Danza que, con toda espectacularidad se ejecuta en las celebraciones invernales y en fiestas veraniegas y danza que sirve, a otro nivel y en otro lugar, concretamente en la localidad guipuzcoana de Ataun, de proyecto de estudio, primerizo de su autora, conteniendo todos los ingredientes básicos sobre los que se deberían sentar las bases en torno a algo, por el momento, apenas ofrecido y divulgado por estas latitudes como es la Antropología de la danza.

Como colofón, la historia abreviada de *Duguna*, grupo folclórico el cual cumplió durante 2008 sus sesenta años de existencia, no falta de avatares y de éxitos que sirven, al igual que cualquier otro colectivo con futuro, lo mismo para hundirse en las páginas de diferentes publicaciones, como para salir a la palestra como representante municipal.

Con respecto al segundo bloque, éste sí se encuentra enmarcado temporalmente, por los trabajos expuestos en las ponencias y comunicaciones, efectuadas con motivo de la Jornada de 2006 realizada en el Palacio Miramar de Donostia titulada “Festa berriak. Antzinako Folklore eta Gaur egungo Ekintzak / Fiestas nuevas. El Folclore de Antaño y los Actos de Hoy”. Debemos recordar en este caso, al igual que la siguiente Jornada, a continuación expuesta que, no todos los autores han enviado los textos: ésta es la causa principal de no verlos aquí presentes.

En los textos de sus conocidos investigadores, por un lado, y practicantes directos de la tradición, por otro, encontramos evidentes y diversas visiones de las fiestas: nuevas por su fundamento social; nuevas por su recuperación y actualización; nuevas por su creación; o nuevas por su relativa y cómplice incoherencia, antigüedad, etc.

Después de una breve introducción realizada por el Presidente de la Sección de Folklore se procedió a la primera ponencia. La esquemática y transcendental presentación de J. Martí, conocido investigador, autor de varios libros y multitud de artículos, nos lleva a introducirnos en todos y cada uno de los elementos que configura cada fiesta y las tipologías de las mismas.

De una visión, geográficamente general, a una específica. Kepa Fdez. de Larrinoa, antropólogo social, nos ofreció sus experiencias, generalmente realizadas sobre el terreno, en otros momentos en Ecuador o Colombia, en este caso en su ya controlado espacio *zuberotarra* con el “acompañamiento a las vacas” que se trasladan al incomparable marco de Ahúzki.

El ámbito festivo, como se puede observar, va sorteando lugares. De un extremo al otro: las Encartaciones. Ingrid Kuschick lleva varios años recogiendo las fiestas de esta comarca vizcaína y haciendo sus cábalas. Esperemos en algún momento ver publicadas sus teorías.

Por la tarde, del mismo día, tuvimos la oportunidad de escuchar y ver otros escenarios de la fiesta.

Primeramente, Mikel Aranburu, *txistulari*, *dantzari*, escritor e investigador, además de protagonista activo en las fiestas de su ciudad, Irunea, es uno de los más validos representantes de las tendencias y cambios surgidos en una fiesta que, a lo largo del tiempo, ha tenido infinidad de cambios, así como el mantenimiento de ciertos actos: San Fermín.

A continuación, Xabier Etxabe y Xabier Alberdi, disertaron sobre la figura de *Oientzero* (*Orentzago*), el día de Reyes Magos y las fiestas de Navidad en una localidad, Zarautz, que, en todo momento, ha sabido preservar ciertos aires de antaño entremezclados con todos los movimientos actuales de celebración.

Para finalizar, se presentaron dos comunicaciones. Una, la de las recuperadas danzas guipuzcoanas de Arrate, *Arrateko Amaren dantzak*. Oier Araolaza nos expuso el proceso de creación con todas sus fases, alternando con otros ejem-

plos de creatividad coreográfica. La segunda, de Alfredo Asiain, acerca de los juegos y el formato lingüístico de transmisión y generación desde el mundo de la “tradicción rural” al ámbito de la “pedagogía escolar” o “extraescolar urbana”.

El tercer capítulo nos introduce en un mundo totalmente diferente para los que se mueven en el campo folclórico y etnográfico, pero cercano a los que practican la fotografía como objeto documental y de acompañamiento de las investigaciones realizadas.

El escaso y difuminado valor que se le da, incluso hoy en día, al material fotográfico, nos sirve de catapulta para buscar nuevas vías de presentación visual y audiovisual. Este concepto es el que nos movió a realizar una Jornada “Folklore ikus-entzuneskoetan / El Folklore en los audiovisuales”, a la que acudieron algunos de los entendidos en la materia que se mueven más en el apartado visual que en el de expresión escrita.

Al margen de la no presencia en la Jornada de alguna que otra persona que, por su experiencia y su buen hacer, representaban a ese mundo, la amalgama de participantes fue recibida calurosamente. No obstante, debemos tener en cuenta, como acabo de comentar unas líneas más arriba, que casi todos los ponentes proceden de los campos de la fotografía y del cine y vídeo, por lo que los textos aquí presentados han supuesto, en su mayoría, un esfuerzo por complacer al Consejo de Redacción. De esta forma conseguimos que queden plasmados en el papel esa parte de su vida y experiencia, que es lo que se les solicitaba de cara a la exposición.

El primer ponente, Manuel Garrido, por diversos problemas físicos, no pudo acudir. Sin embargo, nos hizo llegar un DVD con la ponencia, acompañada de un texto, el cual es el que en este número se reproduce.

A continuación tomó la palabra Eugenio Monesma, productor de Pyrene, empresa dedicada a la realización de documentales por toda la península e islas, el cual dejó paso a Juan Miguel Gutiérrez, el cual nos proyectó una de sus obras realizada en Yebra (Huesca), con imágenes de la festividad de Santa Orosia.

Eneko Lorente en “Cruce de miradas: ‘La pelota vasca’, con Orson Welles” nos ofreció otro punto de vista totalmente diferente, es la teoría de la práctica. Para finalizar el tiempo de la mañana, Koldo San Sebastián, realizador de series documentales y turísticas para ETB o TVE y autor de libros, expuso su opinión acerca de la actualidad televisiva.

De las exposiciones a nivel audiovisual (cine, vídeo y televisión) de la mañana, por la tarde pasamos a la imagen fija (fotografía) con o sin audio. Dio la charla inicial M.^a Ángeles Sánchez con una proyección de diapositivas, realmente interesante, en la que pudieron visualizarse los posicionamientos adquiridos por ciertos fotógrafos ante la fiesta.

El testigo de la fotógrafa española lo cogió Santi Yániz, prolífico periodista especialista en publicaciones de índole montañera, paisajística y naturalista,

pero también festiva, principalmente a nivel de Euskal Herria y autor de varios libros que nos acercan, mediante hermosas imágenes, cada uno de los rincones más variados de la geografía del país.

Su compañero de mesa, Gonzalo M. Azumendi, tuvo la mala fortuna del error informático y, aunque no pudo exponer su disertación, nos ofrece en unas pocas páginas su más que contrastada perspectiva visual y de actitud en cada hecho al que ha acudido a lo largo de varios países.

El espacio de M. Azumendi lo absorbió nuestro buen amigo José F. Alonso. Este joven fotógrafo vallisoletano presentó mediante un audiovisual el montaje preparado al efecto para esta Jornada, lo cual es de agradecer, teniendo en cuenta el esfuerzo que ello conlleva. No contento con esto, se atrevió a escribir unas líneas en las que expone su forma de trabajar y la tipología de la gente y, sobre todo, las expresiones festivas con las que se encuentra por el camino.

Por último, Luis Colomo y Óscar Bilbao ofrecieron un vídeo en el que pudimos observar algunos momentos del festival rock que se realiza desde hace unos años en las campas de Kobetamendi (Bilbo).

A pesar de que los trabajos aquí presentados, difieren considerablemente de metodología entre unos y otros, la intención de ofrecer algunos de los mismos va más allá de la concienzuda, aunque simple, inercia de la variabilidad, dentro del fundamento científico, que en muchas ocasiones nos vemos obligados a normativizar, al menos en este tipo de publicaciones.

Debemos confiar “en” y agradecer, por el esfuerzo que ello conlleva, “a” todas las personas que desinteresadamente nos ofrecen su labor en pos de la cultura, denominémosla tradicional, popular, actual, contemporánea, o como se desee. El adjetivo es lo de menos, lo importante es la base metodológica cualitativa sobre la que se asientan todos y cada uno de los parámetros de cualquier estudio e investigación.

Emilio Xabier Dueñas
Presidente de la Sección de Folclore